

Irakurketaz gozatzeko

Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko, liburuak dotore estali eta etxera zein eramaten den jakin gabe, hitzordu itsu bat proposatzen die irakurleei Iruñeko Civicen liburutegiak.

IRENE ARRIZURIETA. IRUÑEA

Hitzordu itsu bat proposatzen die irakurleei Iruñeko Civicen liburutegiak. Liburuaren izenburua eta azala ikusi gabe, testua etxera eraman, eta, han, ireki eta irakurri. Egitasmoarekin, irakurtzeko zaletasuna bultzatzeaz gain, aurreiritziak apurtu eta interesgarriak diren lanak azaleratu nahi dira, eta, hala, modek edo publizitateak agintzen dituzten bideak gainditu. Nagusiki, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako lanak dira, baina badira ingelesez eta frantsesez idatzitakoak ere. Helduentzat ez eze, nerabe eta gazteentzako eskaintza ere bada.

«Literaturaz maitemintzera» gonbidatzen du Nafarroako Kutxaren kultura guneko Civicen liburutegiak, Iruñean. Letren artean murgildu eta liburuetan kontatzen diren istorioez gozatzeko parada proposatzen dio irakurleari. Liburuak aukeratu ondoren, liburutegiko langileek liburu bakoitza artaz apaindu dute. Opari gisa estali, eta irakurleak eramateko prest jarri dute. Liburuaren kanpoaldean marraztutako kolore biziko bihotzekin batera, alearen erregistro zenbakia idatzi dute, maileguaren bide guztian anonimotasuna bermatzeko. Liburutegiko kartel deigarri batek egiten dio gonbidapena irakurleari. «Hartu bat, eta ez ireki etxera iritsi arte. Horiek dira jokoan parte hartzeko arauak», dio Villar Arellano Civicen liburutegiko zuzendariak. Egitasmoa joan den ostegunean ospatutako Maiteminduen Eguna aitzakia hartuta jarri zuten martxan, hilaren 13an, eta otsailaren 22ra arte iraunen du. «Irakurleek, hiru astez, aukera izanen dute literaturaren abenturarekin gozatzeko». Bakardadean irekitako liburuarekin hasten da abentura.

Aukeratutako liburuen artean ez da izenbururik jakinarazten. Denetarik jarri dute eskaintzan: komikiak, poesia, eleberriak, ipuinak. Hainbat autore, genero, giro eta formatu daude, baina aukeratutako lan guztiek maitasunarekin zerikusia dute. Aurreiritziak baztertu eta irakurketa berriak proposatu nahi dituzte. «Helburua da irakurleak irakurketa iradokizun berriekin saiatzea, azal deigarriak, liburu erakargarriak eta editoreen beste baliabide batzuk albo batera utzita; izan ere, horiek liburu jakin batzuen alde egiten dute, eta interes handiko beste batzuk ezkutatu egiten dituzte», azpimarratu du Arellanok.

Bi txoko

Hitzordu itsurako, bi txoko atondu dituzte liburutegian. Batetik, nerabeentzako tokia dago, 13 urtez goiko gazteentzat; eta, bestetik, jende helduarentzako tokia. Ezustekoak saihesteko, liburuaren kanpoaldean adierazten da testua zein adini dagokion eta zein hizkuntzatan dagoen. Hitzordu itsuaren ideia ez da berria. Los Angelesko (AEB) liburutegi publiko batean jarri zuten martxan Blind Date With a Book (Hitzordu itsua liburu batekin) goiburuarekin, eta, handik, herrialde osora zabaldu zen. Bide horri jarraituz ekarri dute Iruñera. Hogei liburuarekin hasi zuten abentura, baina izaten ari den arrakastarekin, liburu gehiago jarri behar izan dituzte txokoetan. Etorkizunean hitzordu itsu gehiago espero dituzte.